

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure ideia aurrera eramateko eta etekinak lortzeko, hainbat **jarduerak** izan ditugu kontuan, adibidez, ekoizpen prozesua, plataforma edo sareko jarduerak edo arazoak konpontzeko baliabide aproposak izatea besteak beste.

Aurreko guztia ondo kudeatzeko, hauen artean **lehentasunak** ezartzea beharrezkoa da.

Jarduera batzuk kanpoko enpresen esku utziko ditugu, baina ezagutza delakoarekin lotuta dauden guztiak (edo know-how deiturikoak) gure esku egongo dira proiektuaren oinarrian arazorik ez izateko.

Gure enpresaren **jarduera nagusia ekoizpena** dela erabaki dugu, eta arlo honi begira, ekoizpen sailkapena, funtzioa, eraginkortasuna, produktibitate eta produktibitate globala, kostuak, errentagarritasuna, ekoizpenaren kudeaketa, kalitatea etab. ikertu ditugu, gainera, hainbat ikuspuntu desberdin jorratu behar izan ditugu erabaki onenak hartzeko eta etekin handienak izateko.



Arazoak konpontzeko baliabideak izatea oso garrantzitsua da ere. Salmenten gora beherak eragin ditzakeen kostuak ekiditeko adibidez gure segurtasun stock-a zehaztu dugu, eta horrela, arazoren bat izanez gero, gutxieneko tarte bat izango dugu gure arazoa modurik eraginkorrean konpondu ahal izateko ahalik eta **galera txikienak izanez**.

Etorkizuneko arazoetara begira, bilatu egin dugu zeintzuk izaten diren arazorik ohikoenak enpresa berri bat hasterakoan, hala nola arrazoiketa-, zailtasun- eta gatazka-arazoak, hauek aztertu eta horrela, gure enpresan puntu horiek indartzea izan dugu helburu, etorkizuneko arazoak txikitzeko.

Gaur egun, ezin ditugu ahaztu **plataforma edo sare jarduerak**, jarduera garrantzitsuenetako bat dela argi izan genuen hasieratik. Horrelako jarduerekin, gure enpresa eta produktuak ezagutarazten ditugu eta salmentek gora egingo dutela aurreikusi dugu. Gainera, marka handiek gure ideia ikusi eta kolaborazioak egiteko aukerak ere zabaldu egingo direla pentsatzen dugu.

Azkenik, **kanpoko enpresen** esku geratu diren jarduerak eta proposamen guztiak gainbegiratu eta kontrolatuko ditugu, horrela bezeroei eskaini ahal izateko guk proiektu honekin hasteko orduan buruan genuena eta gure enpresaren printzipioak jarraitzeko.